

EBAZPENA, 2021EKO APIRILAREN 15EKOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZUZENDARITZA HORREK 2020KO ABENDUAREN 3AN, 2019-2020 IKASTURTEAN HABEREN A1, A2, B1 ETA B2 EUSKARA-MAILAK EDO HORIEN BALIOKIDEAK GAINDITU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK ONARTZEKO EMAN ZUEN EBAZPENA ZUZENTZEKO DENA.

GERTAKARIAK

I.- HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez 2019-2020 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu zituzten ikasleei zuzendutako dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen.

II.- Ebazpen beraren 7. oinarriak xedatutakoari jarraikiz, eta 6. oinarrian finkatutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak, 2020ko abenduaren 3ko Ebazpenaren bidez, eskariak onartzea (I. Eranskina) edota baztertzea (II. Eranskina) erabaki zuen, onartutako eskari bakoitzari zegokion dirulaguntza adieraziz, eta baztertutakoen arrazoiak zehaztuz.

III.- Aipatu 2020ko abenduaren 3ko Ebazpena argitaratu ondoren, HABEk baieztatu ahal izan du onartutako eskarien nahiz ukatutako zerrendatan akatsak egin dituela. Horretaz ohartuta, eranskinean adierazten den eskariaren gaineko ebazpena aldatzea onartzen da, aipatu 2020ko abenduaren 3ko Ebazpenean adierazitakoa ez baita zuzena.

LEGEZKO OINARRIAK

Lehena.- Urriaren 1eko Herri Administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan ahalbidetzen da Administrazioak bere ekimenean sortutako akatsak zuzentzeko aukera. Hala dio xedapen horrek:

“Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunak eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”.

Bigarrena.- Errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko eskumenari dagokionez, zuzendu beharreko ekintza bera gauzatu duen organori dagokio.

Horrenbestez,





Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZTEN DUT

Lehena.- Zuzendaritza nagusi honen 2020ko abenduaren 3ko Ebazpena zuzentzea, 2019-2020 ikasturtean HABEren A1, A2, B1 eta B2 euskara-mailak edo horien baliokideak egiaztatu dituzten ikasleei dirulaguntzak ematekoa, eta, ondorioz, Ebazpen honen eranskinean adierazten den ikasleari bertan adierazitako dirulaguntza ematea. Aipatu laguntza-kopurua finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaileak egiaztatutako maila, ordaindutako matrikula-kopuruak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 8. oinarriak dioenari begira.

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzaren publizitateari dagokionez, HABEren web orrialdean argitaratuz (www.habe.euskadi.eus).

Hirugarrena.- Interesdunari jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostian, 2021eko apirilaren 15ean.

JOKIN AZKUE ARRASTOA

HABEren zuzendari nagusia